

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

#### **Vitoria-Gasteizko Udaleko Udaltzaren Araudi Organikoaren aldaketaren hasierako onespeneraren akatsak zuzentzea**

2016ko ekainaren 17ko ALHAOn (69. zenbakia) argitaratu zen Vitoria-Gasteizko Udaleko Udaltzaren Araudi Organikoaren aldaketaren hasierako onspena, 2016ko maiatzaren 27an Udaltzaren erabakiz onetsia.

Erabakiaren argitalpenean, aldatutako artikulua aipatzean, ez zen 259. artikulua sartu, zeina honela idatzita geratuko baita:

Edozein udal taldek eta Herritar Erakundeek Udaltzaren Erregistroan izena emanda dauden herritar erakundeek aurkeztu ahalko dituzte kontrol mozioak; herritarren ekimenez ere aurkeztu ahalko dira, boto eskubidea duten herritarren ehuneko baten sinaduren eta Udaltzako sei zinegotziren abala dutelarik. Mozioak bilkura baino gutxienez sei egun natural lehenago erregistratu beharko dira, Udaltzaren Idazkaritza Nagusian. Udaltzak jarrera jakin bat hartzea helburu duten mozioak udal talde guztiek izenpetzen dituztenean Udaltzaren erakunde-adierazpen deituko dira.

Horrenbestez, atzemandako akatsa zuzentzen da.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 27an

*Alkatea*

*GORKA URTARAN AGIRRE*